

—105—

jiña gelditu zan
bakartasun soil e-
ta negargarrian.

Jauna, pekatu egin det.—Aita gurea eta gañe-
rakoak, lenbiziko geldialdian bezela.





Aitorlze ta Jaunartzeko

SAKRAMENTUAK

beaz bezela artzeko bidea.

Aitorpenerako laguntza eskatzeko
otoitza.

Pekatariari bar-
katzeko beti gertu
zauden nere Jaun-
goiko maitea: be-
re utsegitien ku-

—107—

tsuak garbitzeko
Penitentziko ur-
osasungarriak ar-
kitu nayaz, gogo
onez beterik zuga-
na datorren ani-
ma oni, begiratu
zayozu.

Egizu nere Jaun-
goiko maitea! ni
oetara bear bezela
urreratzea; argitu
zaidazu anima, ne-

re pekatu guziak
garbi ezagutzeko:
piztu ezazu nere
biotza berriz ez e-
rortzeko, eta era-
billi izatzu nere
ezpañak ondo ai-
tortzeko, guzien
barkapena onela
eskuratu dezadan.



—109—

Pekatuén gogoratzea.

Ikusi aurrena le-
nago egin diran
aitorpenetan pe-
katuren bat utzi o-
te dan, asmo gaiz-
to edo lotsez, edo
esatea aztu dala-
ko.

Ikusi, pekatua
aundia edo larria
zalako, aitorleari

berak ondo ez aditzeko eran esan ote ziozun.

Ikusi lengo aitoren penekopenitentzia bete zenduan.

Ikusi, pekatuan ez erortzeko alegin guzia jarri dezun.

Gauz oiek guziaz bear dira argi eta garbi esan

—111—

aitorpen ona egin
nai bada, eta ez da
pekatuen gogora-
tzea azkenengo ai-
torpenetik egin
bear, baizikan le-
lenagokoetan ere
esangabe zerbait
utzi ote dan ikusi
bear da.

—112—

AGINDUAK.

I. Goizeko eta gabeko otoitzak bear diran bezela edo zalapartan, zer egiten nuen gogoratu gabe errezatu al ditut?

—Gauza santu edo onai izeka eta parra egin al diet?

—Irakürgai txarrak irakurri al

—113—

ditut?

II. Jaungoiko edo Santuen kaltez biraorik bota, edo gaizki itzegin al det?

III. Jai egunean lan egin aldet? Mezetara uts egin ote det edo joan naizenean ajola gabe egon al naiz? Itz edo parrik e-

Zeruko argi berria.—8

gin al det ondo entzutea besteri eragotziaz?

IV. Nere aita, maisu edo besteri begirapena galdu ote diot? Par egin edo erantzute txarren bat eman al diet? Zarrak bear bezela begiratu alditut?

V. Nere izakera

gaiztoagatik nere
anai edo laguna-
kin asarretu al
naiz?—Gaitzik e-
gin aldiet, beren
kaltez gezurretan
gaizki esaka edo
salatu al ditut kas-
tigatzeagatik?

VI ta IX. Gogo
edo asmo gaizto-
rik izan, edo irudi
edo gauza lotsaga-

rririk ikusi al det?
Kantatu, edo entzun ote ditut pozik kanta gaizto, zikin eta lasayak?

VII. Nere gurasoai edo lagunai dirurik ostu al dietet? Zenbat edo zer gauza eta zenbat bider? Bere jabeari, nor zan jakiniaz, arkitu nue-

—117—

na eman al diot?

VIII. Gezurrik
esaten ote det? E-
san al det bateren
bat besteren kal-
tez?

Bestere ngatik
gaizki esan al det?
Oker oek guztiak
esan bear dira ar-
gi ta garbi.

—118—

Aitoritzeko bidea.

Aitorlearen zai
zauden bitartean,
Sinispen, Itxodo-
den, eta Maiteta-
sunezko Egintzak
egiñaz, zure peka-
tuak oroituazegon
bear dezu; gero e-
san zazu *Ni peka-
taria*, eta asiera e-
mango diozu ai-

—119—

torpenari esanaz:

Agur Maria gu-
ziz garbia: Onen-
beste egun, *aste,*
edo illabete *dira*
aitortu nitzala, or-
duko penitentzia
bete nuen; peka-
tuen gogoratzea e-
gin det; eta nere
biziera zuzentze-
ko asmoa bada-
kart.

—120—

Lenengo agin-
duan egin det one-
lako eta alako pe-
katu... eta onela ai-
tortuko dira beste
pekatu guziak.

Pekatuak ondo ezagutzeko argia
Jaungoikoari eskatzeko
OTOITZA.

Jauna, nere pe-
katu eta gaiztake-
rien aunditasuna

—121—

ezagutzen det, eta
oen barkapena, e-
ta sendagai edo
zuzenbidea eska-
tzen dizut. Peka-
turako daukadan
griña gaizto eta
indartsua zuzen-
du ezazu. Jaun-
goiko guztiz al-
tsua! zure naitasu-
naren bidez egin
ezazu nere egite-

rik onenak galtzen
dituen | nere arro-
keri ta nerekoita-
suna utzi dezada-
la; eta naitasun o-
rrek nere biotzean
indar aundiak ar-
tu ditzala. Jauna,
argaltasuna, gezu-
rra eta pekatua
besterik ez dago
nigan; beragatik,
zure Semearen e-

—123—

riotz éta egite on
guzien izenean pe-
katu guzien barka-
pena eta egizko pe-
nitentzi batez oek
zuzentzeko lagun-
tza biotz biotzetik
eskatzen dizut.

Otoitz au azkendu ondoren e-
sango da, *Ni pekataria.*

—124—

Aitorpen ondorengo otoliza.

Nere Jauna! pe-
kату guziak bar-
kату eta betiko e-
riotzatic gorde-
tzen nazula nitzaz
izan dezun erru-
kia, beti eskertuko
dizut. Nere ani-
mak orain eta be-
ti bedeinkatuko
zaitu eta egin dioz-

—125—

kazun laguntzak
beñere ez ditu az-
tuko. Nitzaz izan
dezun errukiaren
ondoren, zure
naiera lotua egon
bear ez al det? Be-
ragatik, nere ani-
maren Salbatza-
llea! zure lagun-
tzaren bidez agin-
duak bear bezela
betetzea eskeñi

det. Aginduen bi-
detik jarraitzeko,
nere biotzean zure
beldurra ezarri e-
zazu; bada on
zait nere itxodo-
pena zure goguan
jarriaz, zurekin
bateanjoatea. Jau-
na, zugandik al-
dendu ez nadilla
egizu ta zuzendu
nazazu, bide on e-

—127—

ta zuzenetik ibi-
lliaz, egunen ba-
tean zure etzeko
ondasunak irabaz-
teko. Iritxi zada-
zu, Jauna, esker
au; etzaidazula u-
katu, bada zuk sal-
batzen dituzu zu-
gan itxodopen du-
tenak.

—128—

Jaunartze aurrerako Jaungoiko
gure Jaunari
OTOITZA.

—

Jaungoiko biotz
biguña! Nik ba-nu
zutaz, eskatzen
didazun guztia ne-
ri emateko zuk ne-
retzat, daukazun
maitetasuna! Zu-
re naitasunaren
bidez, zorion aun-
di bat, zuk eman di-

tozen toki au, eta
kendu itzazu ber-
tatik zure begiak
igui dituzten gau-
zak, eta onela gar-
bi gelditu azetazu-
re laguntzaz gero
eta geyago zabal-
duaz, zure naita-
sunaren aundita-
suna obetoago ar-
tuko du.

*Espiritu Santuari
otoitza.*

Seme Jaungoi-
koa bere barruan
aragiz jazteko, A-
ma Birjiñaren gor-
putz eta anima
bear zan bezela i-
piñi zinduan Es-
piritu Santua! A-
toz, sar zaite nere
biotzean, ta Jaun-
goiko gizon egiña

—133—

artzeko nere gor-
putz eta anima ja-
rri itzazu.

Apaiza kopoi ta Ostiaz, Jau-
nartzera dijoanaren aurrera e-
tortzen danean, au jasoaz esa-
ten du: *Ecce Agnus Dei, ecce*
qui tollis pecata mundi: eta orr-
ek esan nai du: *Ona non dezu-*
ten Jaunaren bildotxa, au da
munduko pkaetuak kentzen di-
tuana. Orduan Jaunartzera di-
joanak esango du:

Aingeruen janari, Os-
ti bedeinkatua! maita-
tzen zaitut, nere Jaun-
goiko eta Salbatzallea;

sinisten eta uste det, nere bularrean egiten dezun egoerak nere biotza sendatuko duala, etazure laguntzaren bidez, obetuko naizela.

Gero biotz-biotzetik apaizarekin batean iru bider esango du:

Nere Jesukristo Jaina, ez naiz ni gai zu nere etxe kaxkarrean sartzeko; bañan zure itxitxat santuaz nere pekatuak barkatuak izan bi-

—135—

tez eta nere anima sen-
dotua ta salbatua.

Jauna artzean, aoz ez, baizik
biotzez bakarrik. esango du:

Nere Jesukristo Jau-
naren gorputzak nere a-
nima zaindu ta eraman
dezala betiko bizierara.
Alaxen.

*Jaunartze ondorengo
otoitza.*

Kristo'ren ani-
ma guztiz santua,
ondu nazazu: ne-

re Jesukristo Jau-
naren gorputza,
zeruratu nazazu:
Kristo'ren odol
garbia, ase naza-
zu: Kristoren sa-
yetzeko ur garbia,
garbinazazu: Kris-
to'ren arpegiko
izerdi ongarria,
sendotu nazazu:
Kristo'ren erru-
kizko nekaldia, in-

—137—

dartu nazazu:
Jesus ona, zain-
du nazazu: zure
zaurien barruan,
ezkutatu nazazu:
zugandik alden-
tzen ez dizadazula
utzi: nere eriotza-
ko garayan, nere
aldez egizu: zuga-
na joateko, Jauna,
lagundu zaidazu:
ta ipiñi nazazu zu-

—138—

re alboan, ainge-
ru, goiaingeru, ta
santuakin, zu or
goyen, beti goratu,
eta maitatzeko.

Irre kateak Alaxen.

Jaunartze-ondoren eskerrak emateko,
Tomas santu erakuslearen
Otoitza.

Aita guzialdun
eta betiko gure
Jaungoiko Jauna!
Zure seme bakar
Jesukristo gure

Jaunaren gorputz
eta odol garbia ja-
naritzat eman diz-
kidazulako, eske-
rrak ematen diz-
kitzut, eta au guz-
tia, ez esker onen
gai arkitu nazula-
ko, baizik azken-
gabeko zure erru-
kitasunagatik, pe-
katu ta bidegabe-
keri asko egin diz-

kitzudalako. Eskat-
zendizut Jaunar-
tze au izan dagida-
la zure aserrea bi-
gundurik, nere pe-
katuen barkapena
iristeko; sinismen
bizia izateko, si-
nismen onekin, zu-
re babesean ipi-
ñiaz, nere asmo
gaiztoak uzteko;
nere gaiztakeriak

—141—

ezereztutzeko; nere
re naitasun, eramankizun, apaltasun eta onbide gu-
ziak geyagotzeko;
nere etsayen eraso gogorren aurrean lagun izateko,
zurekin betiko bat egin nadin nere
Jaungoikoa! ta,
azkenik zeruko bide ederra arkitze-

ko. Baita ere, eskatzen dizut, mundu ontan zure mayean artu nazun bezela, zure maitatuentzat beste munduan daukazuzun mayera ere artu nazazula; an, Seme ta Espiritu Santuaz egizko argia, atsegin osoa ta betiko zoriona zu zeralako.

—143—



Jesus'en Jainkozko Biotzari
egitan nai dion biotz baten jarduera.

**Ontasun guztien e-
gontokia ta esker guz-
tien azkengabeko iturri
zeran nere Jesus maitea-
ren Jainkozko biotza; ni
orrenbeste maite izateko**

nigan zer arkitu dezu?
Nigana agertu dezun
naitasunak sinistarazten
dit nere naitasunezko
asmoak ondo artuko di-
tuzula. Artu ezazu, ne-
re Salbatzallea, zure
biotz ezin obeari eskein-
tzeko daukadan gogo-
bizia. Nik nere biotza,
berak dauzkan asmo
guztiaz eskeintzen dizut,
eta oek zurien antze-
koak izatea nai det. E-
men nago, zure biotz e-

—145—

zin obeari osotoro emana; guzia zurea nai/. ; Bai aundi dala nereizat daukazu errukitasuna nere biotzaren eskeintza ontzaz artzen dezunéan! Emendik aurrera biotz au zurea izango da, ta munduko gauzai toki-rik emango ez diet. Zure biotzari egiten diodan eskeintz au, bere naitasunari gaizki erantzunaz oraindano egin diozkadan bidegabeketa-

Zeruko argi berria —10

—146—

riak ordaintzeko da. Ne-
re eskeintza laburra da,
bañan nik eman neza-
kedana, eta berak eska-
tzen duan guztia ema-
ten diot iñoiz ez berri-
ro kentzeko asmoaz.

ARKIBIDEA.

	<u>Orriak.</u>
Obispo Jaunaren baimena . . .	7
Kristau onaren goiza	9
Goizeko otoitza	11
Agurra	12
Etxetik ateratzean	13
Elizan sartzean	13
Ur bedeinkatua artzean	14
Jesus Sakramentatuaren aurrean arkitzean	14
Gaxo batentzat Elizakuak erama- ten ikustean	15

Lanen bati asiera ematean . . .	16
Erlejuak ordua jotzean	16
Pekatuan erortzeko zorian arki- tzean	17
Pekatuan erortzen danean . .	17
Ondoeizik arkitzen danean . .	18
Norbaitek gaitz egin digunean .	19
Mayaren bedeinkapena	20
Bazkalondoan launari eman bear zaizkan eskerrak	21
Ezkillak jotzean	22
Otoitza	23
Ama Birjiñaren agurra	24
Oeratzean	26
Maria txit Santuari Otoitza . .	27
Jesus gure Erosleari otoitza . .	28
Jesus'en Jainkozko Biotzari otoitza	29
Erroke Santuari Otoitza . . .	32
Aingeru Zaintzalle Santuari otoi- tza	34
Izeneko Santuari Otoitza . . .	35
Purgatorioko animen aldez Otoi- tza	36
Jose Santuari Otoitza	38
Karmen'go Ama Birjiñari Otoiza	40
Sinispén, Itxodopen ta Maiteta-	

	<u>Orriak</u>
sun Egintzak	42
Padua'ko Antonio Santuari otoitza	43
Meza Santua bear bezela entzute- ko era	46
Mezaren eskeintza	76
Meza Santuaren otoitza	78
Gure ama Birjiñaren kantak . .	83
Gurutze-bide edo kalbarioko e- gipen Santua	89
Aitortze ta Jaunartzeko sakramen- tuak bear bezela artzeko bidea	106
Pekatuén gogoratzea	109
Aginduak	112
Aitortzeko bidea	118
Pekatuak ondo ezagutzeko argia Jaungoikoari eskatzeko otoitza.	120
Aitorpen ondorengo otoitza . .	124
Jaunartze aurrerako Jaungoiko gure Jaunari otoitza	128
Jesukristo gure Jaunari otoitza .	130
Espiritu Santuari otoitza . . .	132
Jaunartze ondorengo otoitza .	135
Jaunartze-ondoren eskerrak ema- teko, Tomas santu erakuslearen Otoitza	138
Jesus'en Jainkozko Biotzari egitan nai dion biotz baten jarduera .	143







